

## BILTZAR NAGUSIAREN AURKEZPENA, Gasteiz 2021-10-30

LEIRE PINEDO

IKER RUIZ DE EGINO

LEIRE PINEDO

Egun on guztioi; eta eskerrik asko Gasteizko Alkartetxera gerturatzeagatik.

Iker Ruiz de Eginok bozeramaileak eta nik, Leire Pinedok, Biltzar Nagusiko Prestaketa Batzordearen buruak Eusko Alkartasunak hurrengo otsaila eta martxoan ospatuko duen Biltzar Nagusia aurkeztu nahi dizuegu.

Biltzar Nagusia Araban ospatuko dugu, eta bide telematikoak zein aurrez aurrekoak prest ditugu.

Pandemia garaiotan, aukera ezberdinak irekita utzi nahi ditugu, data heltzen denean ahalik eta parte hartze handiena izateko modua izan dezagun.

Eusko Alkartasunaren 13. Biltzar Nagusiak "Alkar Zainduz" leloa du.

Alkar zaindu gaitzen,

Alkartasuna zaindu dezagun,

Zaindu dezagun elkar gure gizartea eta gure Herria,

Ekar dezagun zaintza erdigunera

Koronavirusak eragindako krisi honek zerbait erakutsi badigu da elkar zaintzearen garrantzia. Giza harremanak zein beharrezko zaizkigun, eta era berean, zenbat egin dezakegun elkarrekin.

Pandemia honi aurre egiten bagabiltza, elkartasunez betetako profesionalei esker izan da, gaixoak, helduak eta behar gehien dutenak zaindu dituztenei esker; umeak eta ikasleak zaintzen eta modu berriak erabiliz irakasten jarraitu duten irakasleei esker;

Garbitzaileei esker, dendariei esker... bizitza zaindu dutenei esker, finean.

Hau da gure ponentzia politikoaren muina, eta Biltzar Nagusi honen irudia ere.

Bizitza zaintzeak duen garrantzia. Gizartearen oinarrian dauden balioak errespetatzea. Hori da haritz honek eta bere hostoak irudikatzen dutena. Alde batetik, beharrezkoak zaizkigun justizia soziala, ingurumenaren zaintza eta ikuspegi feminista eta bakezalea duen politika. Bestetik, demokrazia, askatasuna eta hitza errespetatzearen ikur den haritz hostoa.

Eta noski, Elkar zainduz ere bada Eusko Alkartasunako kideoi zuzendutako mezua. Betidanik eztabaidatu izan dugu alderdi honetan, baina 4urtetik ona, eztabaida hori larregi garrastu da.

Alderdikideak eta alderdia bera zaindu eta errespetatzeko deia luzatzen duen lelo eta irudia ere bada, izan ere hostoak asko eta ezberdinak izan daitezke, albo batera zein bestera joan daitezkenak, baina enbor berekoak dira, denak, denak sustrai beretik elikatuak. Hori ere zaindu behar dugu Haritzak hazten jarrai dezan nahi badugu.

Horretarako, barne eztabaida epea irekiko dugu hurrengo astean.

Azaroaren 3tik eta abenduaren 3ra, herri bilerak ospatuko dira ponentzia politikoa eta estatutuak aztertu, landu, emendakinak aurkeztu, eta Nazio Biltzarrerako konpromisarioak hautatzeko. Afiliazioak erabakiko du beraz zer nolako arauen bitartez eta zein norabide politikorekin lan egingo duen hurrengo lau urtetan.

Hau guztia prozesu asanbleario, demokratiko eta parte hartzaile baten bidez egingo dugu, Eusko Alkartasunan beti egin dugun bezala.

Behin hau azalduta, Estatutuei buruzko azalpena emango dut:

Estatutuak erabilgarriak eta ulerterrazak egin nahi izan ditugu, gaizki ulertzeak edo interpretazio kontraesankorrak ekiditeko.

Eusko Alkartasunako afiliatuen eskubide eta betebeharrak argituz, gerora onartu daitezkeen araudi zehatzagoei bide eta leku emanaz, eta organo guztien funtzionamendua argituz eta zehaztuz.

Honekin, alderdia zaintzeko, eta era berean gaurkotzeko helburua bete nahi izan dugu. Berritasun gisa, bilera telematikoen antolaketa ere ezarri dugu, garai berriotara moldatuz.

Eta orain, Iker Ruiz de Eginori emango diot hitza, ponentzia politikoaren nondik norakoak azal ditzan.

## IKER RUIZ DE EGINO

Aurkeztan ari garen ponentzia politikoaren zirriborroa, txostena egiteko izendatu zen lantaldearen fruitua da, hilabeteotan landua, eta arlo ezberdinetako adituen ekarpenak jasotzen dituena. Txosten honek Kontseilu Nagusiaren oniritzia dauka, gure oraingo estatutuek eskatzen duten moduan.

Ponentzia politikoaren helburu nagusia EAK hurrengo 4 urtetan eramango duen norabidea markatzea da, afiliazioak erabakitzen duen norabidea hain zuzen. Leirek azaldu duen moduan, prozesu hau ez da Berria, horrela egin izan baitugu beti EAren 35 urteotan. Hori da hain zuzen Biltzar Nagusiaren aberastasuna; alderdiaren etorkizuna ereiteko auzolana.

Sustraietan, orain 4 urte Donostian onartu genuen dokumentua du txosten politikoak, eta 2025era arteko erabilgarritasunez gaurkotzea izan da lantaldearen asmoa. Gure ustez, ponentziak bizirik dauden hitzarmenak dira, zaindu, moldatu eta eguneratu beharrekoak, izan ere, Politika eta alderdiak etengabeko garatze prozesua jasaten baitute; gizartea, Euskal Herria eta mundua bera garatzen diren era berean. Uste dugu ponentzia honek bere baitan hartzen dituela errealitate berrira

moldatzeko erronka, berau gertatzeko baldintzak, eta epe motzera begirako zeregin politikoak.

6 kapitulutan banatua dago txosten politikoak:

1. 2020garren hamarkadako sozialdemokrazia
2. EAren printzipio ideologikoak 35 urteren ostean
3. Merezi dugun Euskal errepublika ereiteko balioak
4. Euskal estatugintza eta bere lekua Europar Batasunean
5. Beste herrialdeekiko harremanak
6. Parte hartze politiko Berria, eta Euskal Herria Bildu zein Euskal Herria Bairekiko antolaketa

Sozialdemokrazia eraldatzailea inoiz baino beharrezkoa zaigu. Beti zaindu eta defendatu dugu ideologia hau, pertsonak eta hauen zaintza jartzen baititu erdigunean, justizia sozialaren bidez, eta aberastasunaren banaketaz berdintasuna ezarriz; planeta zainduko duen produkzio mota eraginkorragoa landuz, eta autodeterminazio eskubidea herrien oinarrizko eskubidetzat izanik.

Bigarren kapitulan EAren printzipio ideologikoak aztertzen ditugu, berauek berriztuz eta berrituz. Covid 19tik eratorritako krisiak garamatza lehentasunak berrikustera, eta zaintzak erdigunean jartzera.

3garrenean Euskal Errepublikaren eraikuntzako 12 zurtoinak definitzen ditugu; Gure herriaren aniztasunak, luzeegi iraun duen gatazka politikoak eta bakegintza, Feminismoa, nortasuna eta kohesioa, euskara, hezkuntza, trantsizio ekologikoa eta digitala, ekonomia zirkularra, energia trantsizioa, agroekologia beharrezko jotzen ditugu gizarte bezala garatu eta planeta zaintzeko. Kapitulu LGTBIQ, gazte eta pentsionisten egoerak ixten du.

4garrenean Euskal Herri aske eta burujabearen eraikuntzarako bide orria proposatzen dugu, gizartearen ongizatea bermatuko duen erabakimen osoa izan dezagun.

Europazaleak gara, baina estatuen interesen gainera Herrien Europa defendatuko duen Europar Batasuna babesten dugu, aitortu eta zainduko gaituena. Estaturik gabeko beste nazio batzuen errealitateari heltzen diogu. Helburu politikoetan bat gatozen beste alderdi batzuekin aliantzak egitea ere proposatzen dugu.

Iparraldeko eta diasporak inoiz baino presentzia handiagoa dute txosten honetan. Euskal Elkargoaren sorrera EAK urtetan aldarrikatu, defendatu eta egikaritzen lagundu zuen ametsa, gaur errealitate bilakatua. Eta EH Bai, Iparralde Euskal Herriago eta Paris gutxiago izateko erreminta dugu. Euskal Diaspora, gure zortzigarren probintziari esker antzematen dugu munduan zehar ere zaintzen gaituztela. Harreman horiek sendotzeko proposamena dakargu.



XIII. BILTZAR NAZIONALA  
2022KO OTSAILA ETA MARTXOA  
ARABA



euskoalkartasuna.eus

Azken kapituluan, EAK EH Bilduren eta EH Bairen antolakuntzan eta ekintzan parte hartzeko modua azaltzen dugu. Gure ustez, bilkideek diseinatu eta onartutako egungo EH Bildu da gure estatutuen 1. artikulua gauzatzeko dugun tresnarik eraginkorrena; Europar Batasunean Euskal Errepublika askea lortzea, justizian, elkartasunean eta bakean oinarritutako gizartean. Inork ez dezala ahaztu horregatik sinatu genituela Lortu Arte zein Baluarteako akordioak.

Oro har, txosten politikoaren laburpena da hau, eztabaidarako abiapuntu izatea espero duguna. Afiliatu guztien parte hartzea espero dugu, ideiak landuz. Ziur gaude prozesu hau aberasgarria izango zaigula guztioi, eta batez ere EAri, behin ponentzia hauek Otsaila eta Martxoko Biltzarrean onartua, guztiok babestuko gaituen abaroa izan dadin, eta barne gatazkekin amaitzeko balioko duela txosten honek.

Finean, Eusko Alkartasunako militantzia independentista, sozialdemokrata, europazalea, feminista eta ekologista zaindu, batu eta sendotuko duen ponentzia izatea espero dugu.

Eskerrik asko

## PRESENTACIÓN DEL CONGRESO NACIONAL, Gasteiz 2021-10-30

### RUEDA DE PRENSA

El portavoz Iker Ruiz de Egin y yo, Leire Pinedo, presidenta de la Comisión preparatoria, queremos presentaros el Congreso que Eusko Alkartasuna celebrará en los próximos meses de febrero y marzo.

El Congreso se celebrará en Araba y se podrá seguir tanto a través de canales telemáticos como presenciales.

En estos tiempos de pandemia, y ante el nuevo aumento de la incidencia del coronavirus, dejamos abiertas las diferentes opciones para que cuando llegue la fecha podamos contar con la mayor participación posible.

El Congreso inició su andadura el pasado mes de julio y culminará su proceso los próximos meses de febrero y marzo Araba.

Históricamente Eusko Alkartasuna ha celebrado sus congresos a lo largo del cuarto año. En esta ocasión nos hemos visto obligados a aplazarlo unos meses a causa de la pandemia.

Por el camino hemos descubierto que la solidaridad entre nosotros y nosotras sigue siendo un referente y nos ha animado a presentarnos hoy aquí para tratar de seguir en el camino de la solidaridad, al frente de una izquierda justa, solidaria y sobre todo más amplia. Es aquí donde los y las afiliadas de EA toman la palabra y es aquí donde toca a nivel interno hablar, debatir y abandonar la polémica para centrarnos en nosotras mismas poniendo de nuevo al país en el foco de referencia. Porque los partidos no se pueden construir de espaldas a la ciudadanía.

El Congreso nº 13 de Eusko Alkartasuna tiene por lema “Alkar Zainduz” o “cuidémonos”.

Cuidemos la solidaridad,

Cuidemos nuestra sociedad y nuestro País.

Traigamos los cuidados al centro de la política.

Si algo nos ha enseñado esta crisis acrecentada por el coronavirus es la importancia de cuidarnos mutuamente; lo necesarias son las relaciones humanas y cuánto podemos hacer juntos y juntas.

Si estamos haciendo frente a esta pandemia es gracias a los y las profesionales llenos de solidaridad, gracias a quienes han cuidado enfermos, mayores y a quien más necesidad de cuidados tenía; a los y las profesoras que han seguido cuidando al alumnado y enseñando de nuevas maneras; a quienes se encargan de la limpieza, de las tiendas... en definitiva, a quienes han cuidado la vida.

Este es el núcleo de nuestra ponencia política y la imagen de este Congreso. La importancia del cuidado de la vida. La importancia de respetar los valores raíz de la sociedad vasca. Eso es lo que representa este roble y su hoja. Por un lado, la justicia social, el cuidado del medio ambiente y una

política con visión feminista y pacifista. Por otro, la hoja del roble símbolo de democracia, libertad y respeto a la palabra.

Y claro, Alkar Zainduz, cuidémonos, también es un mensaje dirigido a los miembros de Eusko Alkartasuna. Desde siempre hemos debatido en este partido, pero en los últimos cuatro años, ese debate se ha agriado demasiado. Es también un lema y una imagen que llama a cuidar y respetar a los miembros del partido y al propio partido, porque las hojas pueden ser muchas y diferentes, pueden crecer hacia un lado o hacia otro, pero todas pertenecen al mismo tronco, y se nutren de la misma savia. Eso también debemos cuidarlo, si queremos que el Roble siga creciendo.

Para ello, abrimos un periodo de debate interno la próxima semana.

Del 3 de noviembre al 3 de diciembre se celebrarán las reuniones locales para analizar la ponencia política y la ponencia estatutaria, trabajarlas, presentar enmiendas y elegir a los compromisarios del Congreso.

La afiliación determinará, por tanto, a través de qué normas y con qué orientación política trabajaremos en los próximos cuatro años.

Todo esto lo haremos a través de un proceso asambleario, democrático y participativo, como siempre hemos hecho en Eusko Alkartasuna; como no sabemos hacer de otra manera.

Ahora explicaré someramente la ponencia estatutaria:

El objetivo principal que nos hemos marcado ha sido el de hacer un texto más manejable y entendible. Un texto que pone en el centro del partido el ámbito local y el nacional. Nacimos para defender la independencia, la solidaridad y la inconveniencia de la LTH y es en esos términos como queremos construir nuestro partido. Eusko Alkartasuna como ejemplo de la construcción nacional.

Un documento que aporte claridad y seguridad a todos los miembros del partido.

En definitiva, unos estatutos que nos sirvan para avanzar y trabajar por el bien del país. Con este ejercicio de clarificación, queremos cuidar y actualizar el partido y su modo de trabajo. Así, por ejemplo para reforzar la participación, el debate y el aprendizaje entre la afiliación hemos definido en estos estatutos una conferencia política anual, los grupos de Trabajo 2.0 o el refuerzo del ámbito institucional creando un grupo de trabajo-con aquellos miembros de EA que están en las instituciones para compartir experiencias y proyectar a las alianzas políticas a las que pertenecemos, nuestra forma de ser y nuestra capacidad de trabajo.

Ahora, será el portavoz de Eusko Alkartasuna, Iker Ruiz de Egin, quien explique la ponencia política.

## IKER RUIZ DE EGINO

El borrador de la ponencia política que presentamos, aprobada por el Consejo Nacional, tal y como establecen nuestros estatutos, es fruto del trabajo de meses de las personas que fueron designadas para formar parte de la ponencia. También recoge aportaciones solicitadas a expertos y expertas en diferentes materias.

La ponencia política delinea la línea maestra de EA para los próximos 4 años, y será la afiliación de EA quien fije este rumbo. Este proceso, como lo ha explicado Leire, no es nuevo, ya que es la manera de la que ha trabajado EA en sus 35 años de historia. Esta es la mayor riqueza de un Congreso, ser el lugar de encuentro en el que, entre todas y todas, construimos el futuro de nuestro partido.

El documento borrador que presentamos ahora, principalmente está basada en la ponencia acordada en el congreso de Donostia hace 4 años. El equipo ponente nos hemos esforzado en actualizar aquella ponencia al 2021, de forma que encaje mejor en la actual EA. A nuestro entender las ponencias son acuerdos vivos que requieren de adaptaciones o actualizaciones porque el mundo, la sociedad, Euskal Herria, y por supuesto Eusko Alkartasuna, evolucionan. Consideramos que esta ponencia cumple con el deber de adaptarse al nuevo hábitat, condiciones e incluso vislumbra el futuro inmediato.

Los temas a analizar son oportunos para que un debate sano, fluido, enriquecedor y dinámico se dé tanto en las organizaciones locales, donde empezará el trabajo de sastrería a medida, como en el plenario congresual donde todas las enmiendas presentadas serán tratadas como viene establecido en la normativa de EA.

Tiene 6 capítulos, en los cuales abordamos cuestiones cruciales de nuestro partido:

- 1- la socialdemocracia en el 2021
- 2- los principios ideológicos de EA tras 35 años de vida
- 3- los valores de la sociedad vasca que consideramos imprescindibles para construir la república vasca que nos merecemos
- 4- la nación vasca en sí como estado propio y su encaje en Europa
- 5- las relaciones con otras naciones y pueblos
- 6- y por último las nuevas formas de participación política y modelo de organización en Euskal Herria Bildu y Euskal Herria Bai.

La socialdemocracia transformadora es más necesaria que nunca en Europa. Siempre hemos

cuidado y defendido esta ideología, porque pone a la personas en el primer lugar, con la justicia social como herramienta, con el reparto de la riqueza como requisito igualador, con la necesidad urgente de producir más eficazmente para cuidar el planeta y con la reivindicación de la autodeterminación como derecho fundamental de los pueblos.

En el segundo capítulo abordamos los principios ideológicos de EA. Aquí nuestro trabajo ha sido revisar los principios que fundaron EA hace 35 años y proponemos adaptarlos al hoy. Sin duda lo vivido en el mundo por la pandemia del Covid 19, obliga a que nos replanteemos las prioridades de estos principios. En este capítulo establecemos los principios democráticos necesarios para cuidar una vida digna, justa, sin dejar a nadie de lado.

En el tercer capítulo proponemos lo que para los y las ponentes son los 12 pilares sobre los que se debe construir la republica vasca. Empezando con la aceptación de las pluralidades de nuestro pueblo, la necesidad de resolver el conflicto político que lleva demasiado tiempo entre nosotras y no permite que la paz arraigue. El Feminismo. La cohesión y la identidad, el euskara, la educación, la transición Ecológica, la agroecológica, la economía circular, la transición energética o la transición digital como retos imprescindibles para avanzar como sociedad y salvar el planeta. Terminamos el capítulo abordando la realidad del colectivo LGTBIQ, la juventud y la de las personas pensionistas.

En el capítulo 4 soñamos con la Euskal Herria soberana e independiente, que tiene su estado propio. Para ello proponemos nuestra hoja de ruta para la creación de un estado vasco que nos dé plena soberanía y nos garantice el bien estar de toda la ciudadanía vasca.

Somos europeístas pero creemos en una Europa que respete y defienda los derechos lingüísticos, culturales y políticos de sus pueblos, por encima de intereses estatales. Además abordamos la realidad de otras naciones sin estado. Proponemos alianzas con otros partidos, porque compartimos objetivos políticos y porque juntos y juntas somos más fuertes en la Europa que debe reconocernos y cuidarnos.

Las realidades de Iparralde y la diáspora tienen más presencia en esta nueva ponencia. La mancomunidad Vasca de Iparralde es la realidad que EA apostó hace años. EH Bai es la herramienta que hemos creado para que Iparralde sea más Euskal Herria y menos Paris. Y con la Diáspora lo mismo, la octava provincia vasca que vive y crece en muchos rincones de este mundo, nos ayuda a ver que desde fuera de Euskal Herria también nos cuidan.

En el último capítulo explicamos el modo de participación política y organización de EA tanto en EH Bildu como en EH Bai. Entendemos que la actual EH Bildu diseñada por las y los Bilkides, es la





XIII. BILTZAR NAZIONALA  
2022KO OTSAILA ETA MARTXOA  
ARABA



euskoalkartasuna.eus

herramienta más eficaz que tenemos para conseguir la materialización del artículo 1 de nuestro estatutos; la Independencia de Euskal Herria mediante la construcción de un Estado propio como Republica Vasca en el seno de Unión Europea, así como la consecución de una sociedad más justa y solidaria, y en paz. Que nadie olvide que por esto firmamos el acuerdo de Lortu Arte y el del Baluarte.

A grandes rasgos este es el resumen de la Ponencia Política que esperamos sirva de punto de partida para el debate. Debate en cual queremos que toda la afiliación participe, aportando sus ideas. Debate que tenemos por seguro, llegará a buen puerto y una vez adquiera forma de ponencia definitiva, nos hará mejor partido.

Ponencia final que llevaremos con orgullo a EH Bildu, a EH Bai, a la ALE, adonde estimemos. Ponencia que esperamos obtenga un respaldo lo más amplio posible. Ponencia que deseamos sirva para cicatrizar las heridas que llevan demasiado tiempo abiertas en EA.

En definitiva una ponencia que cuide, una y fortalezca a la militancia de Eusko Alkartasuna independentista, socialdemócrata de izquierda transformadora, europeísta, feminista y ecológica.

Eskerrik asko